

«Idazleok irakurleekin harreman handiagoa izan beharko genuke»

Aitor Aranek Sacamantecas hiltzaile historikoaren bizitzan oinarritutako eleberria idatzi du

ELKARRIZKETA

IRAITZ URKULO

Aitor Arana (Legazpi, 1963), berrehun liburu inguru argitaraturik, euskal literaturako idazlerik eta itzultzailearik emankorrenetakoa da. Ia genero guztiak jorratu ditu azken hogeita hamar urte luzeko ibilbidean zehar: hiztegiak, euskalkie buruzko azterketak, saiakerak, haur eta gazte literatura, narrazioak, eleberriak, antzerki-lanak... Territoriosek berarekin hitz egin du eta, bide batez, azken lana 'Sacamantecas nuen aita' (Txalaparta, 2012) izeneko eleberria aurkeztu digu.

– Argitaratu duzun liburuen kopurua ikusita, inork pentsa dezake lan guztien kalitatea bermatzea ezinezkoa dela, eta baita ere etengabe genero batetik bestera jauzi egiteko erakusten duzun erraztasuna susmagarria dela.

– Emankortasunean kalitateari eustea jakintza eta jarrerara kontua da. Badira idazleak euskaraz ongi jakin ez eta hori bost axola zaienak: testuak zuzentzea editoreen lana dela esaten dute. Nik beti arduraz zaindu izan dut hizkuntza, hori idazle lan gaia dela pentsatzen baitut. Eta, buka-tzeko, genero batetik bestera dantzan ibiltzea asko gustatzen zaidan gauza da: asko idazten dudanez, asperrak litzaidake beti genero berean ibiltzea.

– Non kokatuko zenuke zeure burua euskal literaturaren sisteman? Idazle periferikotzat har zaitzakegu? Ala idazle guztien helburua kanonaren erdigunea jotzea dela pentsatzen dutenetakoa zara?

– Zorionez, inoiz ez nau kezkatu gai horrek; ez sailkapenek, ez periferiak ez kanonak. Gogoan dut hamazazpi urte nituenean neure buruari gustuko gaiak idaztetik bizitzera proposatu niola, eta



Idazleak berrehun liburu baino gehiago publikatu ditu. :: IGNACIO PÉREZ

horretan ahalegin handia egingo nuela. Lortu nuen eta oso pozik nago horrekin. Gustatzen zaidana eginez bizi naiz, hori da nire lanbidea eta, gainera, euskal kulturgintzan eragiten dut nire idazlanez, hiztegiez, ikasliburuez... Ez dago besterik eskatzerik. Ez zait gehiegi axola besteek esaten dutena. Irakurleekin harreman handia dut, eta haiek esaten didatena oso kontuan izaten dut. Horixe da idazleok gehiago egin behar genukeen pentsatzen dudana.

– Lanbidez idazlea eta itzultzailea zara, bi ofizioak ondo ezagutzen dituzu. Zeinek ematen dizkizu poztasun gehien?

– Biek ematen didate poz handia, txandaka ibiltzen naitzelako bietan, batekin nekat-

zen naizenean bestera pasatuz. Nerabea nintzenean itzultzea asko gustatzen zitzaidan, eta harezkerok ez dut zaltetan hori utzi eta lanbide osagarri bihurtu dut. Erosoena, dena den, itzulpena da, liburua sor-tzeko bidea eginda ematen dizutelako liburu bat itzultzeko eskatzen dizutenean, liburua bera jadanik idatzita dagoelako. Sortzen dugunean, aldiz, bide hori geuk egin behar dugu, eta horrek halako urduritasuna sor-tzen du. Behin bukatuz gero, ordea, urduritasun hori poz handi bihurtzen da, eta horrek animatzen nau idazten jarraitzera.

– Zer aurreratu diezagukezu 'Sacamantecas nuen aita' eleberri sortu berriaz?

– Liburu horretaz jadanik hitzaldiak eta topaketak egin

«Gustatzen zaidana eginez bizi naiz, hori da nire lanbidea eta, gainera, euskal kulturgintzan eragiten dut nire idazlanez... Ez dago besterik eskatzerik»

ditut, eta jendea gehien gustatzen zaiona da pertsonaia ezagun edo erdi ezagun horren inguruko gauza zehatzak eta xehetasunak jakitea. Nor izan zen, nola bizi izan zen... Liburu hau irakurrita, horren guztiaren nondik norakoak jakin daitezke, 300 orrialdeko liburu lodirik irakurri beharrik gabe eta, irakurleek esan didaten bezala, modu arinean eta entretenigarrian.

– Dokumentazio-lan handia dago liburu honen atzean. Zein generotan sailkatuko zenuke? Non dago benetako historia eta fikziozko istorioaren arteko muga?

– Bai, Sacamantecasi buruzko hainbeste agiri dagoenez, aukeraketa lan handia egin behar izan nuen, lana nola-

bait mugatuko banuen. Nire ustez liburua historikoa da eta biografia ere bada aldi berean. Benetako historia ia dena da, eta fikziozko istorioa, oro har, Adela alabaren pertsonaia eta haren bizimodu dira.

Pertsonaia historikoak

– Zeintzuk dira pertsonaia historiko batean oinarritutako lan bat idaztearen abantailak eta desabantailak?

– Abantailak dira hariaren hasiera, muina eta bukaera egin da daudela. Desabantailak, berriz, delako pertsonaiaren inguruko informazio pila txukuntzea eta irakurleari modu erakargarrian aurkeztea. Gogoan dut 'Oscar eta Sebastian' idatzi nuenean ere, informazioak gainditu egiten ninduela. Sacamantecasekin hori ez da horren astuna izan, biek ere lana izan duten arren. Oso interesgarria da, dena den, hilda dagoen pertsonaia paper artetik ateratzea eta, berriz ere, papelean hari bizia ematea.

– Ikuspuntu berezia baliatu duzu, ez baita batere ohikoa narrazioa hiltzaile baten edo haren senideen ikuspegitik abiatzea.

– Liburu asko idatzi ditugun arazo nagusia, behar bada, horixe izango da: narrazio ikuspuntu eta denbora berriak nahi izaten ditugula, gauza ezohikoak egin beharra izaten dugula. Batzuetan ondo asmatuko dugula pentsatzen dut, eta beste batzuetan ez. Saiatzea da axola duena, azken batean, nik behintzat ez baititut liburuak idazten den-denak bestellerak izan daitezke. Liburu bakoitzak bere bidea hartu behar du. Sacamantecasek zuk aipatutako berrikuntza badakar, poztan naiz.

– Zure helduentzako obra osoan zehar bi gai errepikatzen dira: sexua eta bortizkeria. Transgresioaren efektu erakargarrian sinesen duzu? Ala euskal irakurle zintzoa asaldatu nahian zabilta?

– Arrazoi duzu: transgresioak badu bere efektu erakargarria. Askotan galdetu didate transgresioaren bila edo irakurlea asaldatu nahian nabilen. Ez berriaz. Aitortuko dizut, zenbaitetan, are idazlan bortitzagoak idazteko tentazioa izaten dudala, aldarre hori datorkidanean. Ez dakit zergatik den, oso gizon lasaia eta lanari patxadaz emana bainaz. Dena den, idazlan samurrak maite dituztenentzako liburuak ere badauzkat, eta halako berriak badatortzen bidean. Horiek, beti ere, Durangoko azokatik kanpo aurkezten saiatuko naiz, jende interesdunak haien berri izan dezan.